

Iñaki Odriozola

FILOSOFIA IRAKASLEA

Eraldaketa datorrela!

Krisiaren lehen oihartzunak entzun genituenean, orain pare bat urte, Marx irakurtzera jo genuen askok, aspaldian, etxeko liburutegiko hirugarren apa-lean, ahazturik baikeneukan. Azken urteak “bigunak” izan dira Europako alde honetan, eta ezkertiarak ginenak –garenak– ere, adin batetik aurrera, erdiak funtzionario eginda, edo bikoteetako biak lanean egonda, ordu-estren menpeko langileria apoltrona-tua –nagia tartean– bihurtu gara.

Berrogeita bost urteetara helduak, jada helduak, Jacan edo Zarautzen apartamentua erosita genuen, ordurako erdi ordain-duta, eta gure kapitalismoari buruzko kritika ahulduta zegoen. Etsipen gazi-gozoan murgildurik geunden, esanaz: “Ez dakigu zer egin”, “0,7a txinitoei emango diegu”, “ingurugiroa zaindu behar da”, “immigranteak gureganatu behar ditugu”, eta kito. Ezer gutxi egiteko gai izan gara, benetako aldaketaren-eraldaketa-aren alde. Izan ere, Luis Buñuelen filmaren izenburua gogoan, burgesiaren –txiki-txikia, baina burgesia– ezkutu-ko xarma hori beti izan baita hain liluragarri!

Munduko beste tokietan egiten ziren saiakera iraultzaileen nostalgia sentitzen genuen, baina hemen ezin zirela egin pentsatzen, esaten. Eta derrepente, hara non, guztiok animatu gara, berriz ere.



DANI BLANCO

Berreskuratu ditugu ajatuak genituen sozialismoaren kontzeptuak, eta eman diegu barniz pixka bat: zerbitzu publikoak indartu, bankuak nazionalizatu, sektore estrategikoak gizarteratu, alokairu sozialak bultzatu, gizarte soldata eta kontratu duinak eskuratu, benetako ongizate estatua lortu. Ez dago batere gaizki.

Horregatik, azken aldian, berriketa ugari egiten ari gara, ezegonkortasuna lasaitzeko edo, bai ERE delakoek uzten dizkiguten ordu libreak betetze aldera, bai iganderoko mendi-bueltan, bai sozieda-deetako –lehen restaurantean egiten genituen– afarietan. Eztabaida interesgarriak, aberatsak erdiesten ditugu, noizbait grinak ere pizten dizkigutenak. Eta konponduko dugu mundua berriz ere, gure aulkitxoetatik altxatu gabe.

Bitartean, beste batzuek, hainbat neurri eraginkor hartu dituzte dagoeneko, eta hainbat “guru” martxan jarri –baietz, Saratxaga?–, kapitalismoa eraberritu eta garatzeko. Inbertsio handiak egiten ari dira, humanismoz mozorrotuta, produkzioak handitu, behar berriak asmatu, engainu erakargarriak sortu, eta irizpide sozialak ere merkatuaren logikan barneratzen.

Ziur nago apustua irabaziko digutela, oraingoan ere. Ala, ez? ▢



Eztabaida interesgarriak,
aberatsak erdiesten ditugu,
noizbait grinak ere pizten
dizkigutenak. Eta konponduko
dugu mundua berriz ere, gure
aulkitxoetatik altxatu gabe



TXANDAN

Edu Zelaieta



...proposatu nahi dizkizuet, ez txantxa edo jolas gisa, baizik eta zuek egiazki lagunduko nauzuelakoan. Adibidez, ez baitut afera ongi konprenitzen, zer dela eta zer dela mendebaldeko gobernuek biltzen dituzten gorpuak euren bandera nazionalekin, gerretara bidalitako soldadu hilak ekialdetik bueltan ekartzen dituztenean; identitate nazionalek –berezi *etniko*-tzat jotzen direnek– ezinbestean desagertzera jo behar dutela behin eta berriz oroitarazten diguten mundu global honetan.

Bizpahiru asmakizun...

Halaber, albiste bilakatu zen Parisko Eguberrietako argiak nork piztu zituen eta, batez ere, aurtengo kolore nagusia: morea, krisialdian kolore honek gudan esperantza sortzeko omen duen gaitasunagatik. Ez zuten deus ere aipatu, ordea, zer dela eta zer dela Eguberrietako apaingarriak piztuta egongo diren azarotik urtarrila arte, 45 egunez. Krisiagatik ote?

Aurten bete ditudan 36 urteek, bizpahiru asmakizunez gainera, hauxe ekarri didate opari: dagoeneko hurbilago nago 40etatik 30etatik baino, 50etatik 20etatik baino. Aitzitik, zer dela eta zer dela, helduon hitzezko jolasak asmatzeko sekulako lanak izaten ditut oraindik. ▢